

Kultura

Sugaray Rayford blues kantari estatubatuarrak kontzertua emango du Zornotzan Travellin' Brothers talde bizkaitarragaz > 14



Toñak Batzorde Etikoaren esku utzi du sailburu kargua

Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburua ezingo da konkurtso-administratzaile izan hemezortzi hilabetez, Bizkaiko Auzitegiak postu horretarako ezgaitu duelako

Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburu izendatu eta gutxira, Bizkaiko Auzitegiak Angel Toñaren kontrako epaia ebatzi, eta hemezortzi hilabeterako ezgaitu du, beraz, tarte horretan ezingo da konkurtso-administratzaile izan. Toñak, talde bereko Fundifes (Durango), Otsaila XXI eta Badator Gestión 2014 enpresetako konkurtso-administratzaile zela, likidazio sasoian

ordainketen ordena aldatu zuen, eta Gizarte Segurantzari eta bost langileri zorra atzera-tzearren zigortu dute. Albistea publiko egin ostean, sailburuak Jaurlaritzako Batzorde Etikoaren esku utzi du bere kargua. Fundifes enpresa 2008an itxi zuten. Langileek eskatu zuten enpresak hartzen dituen lurrak birkalifikatzeko, baina proposamena ez zuten begi onez ikusi Durangoko Udalean. > 6




Mozorroen magia

Durangaldean, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte hurrengo egunetarako inauterien inguruan. Mozorroak prestatu, eta kalera irteteko egunak dira. > 3

Maialen Zuazubiskar

JAUNARTZEAK 2015

Izen Emate Zerrenda Zabalik.
Eskatu Zure Aurrekontua.



www.kidsandkliks.com

info@kidsandkliks.com
Tfno: 635 75 86 73

Durango > 6

Ikasleek txirrindulari ohien aholkuak entzungo dituzte

Iurreta > 8

Euriteetako urak batzeko biltegia inauguratu dute Arriandin

Zornotza > 9

30 lur-jabe deitu dituzte desjabetze aktak sinatzera

Otxandio > 2

Plazaren eraberritzea udalaren aurtengo inbertsioen artean

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio buroa:
Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia, Amaia Huarte Basabe, Itxaso Altuna Marina.

Erredakzioa: Aitziber Basauri
Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao, Markel
Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde
Begoña, Martxel Zubia Arrinda eta
Eneko Azurmendi Barrena.

Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Inauteri egunetan, kolorez eta jai giroz jantziko da Durangaldea

Inauterizaleak prestatzen dabilta, martitzenera arteko jaiatzeko

DURANGALDEA M. Onaindia
Datozen egunetan, inauteriak ospatuko dira herririk herri, eta, horri esker, kolorez eta jai giroz jantziko da Durangaldea. Makina bat ekitaldi antolatu dituzte han eta hemen, eta inauteriak gustuko dituztenak mozo-roak prestatzeko azken lanetan dabilta: trastelekua astindu, arropak eta telak eskatu, denda erostetako egin... Beste norbait izateko edo norbere buruari barre egiteko, eraldatzea da kontua, eta martitzenera arte iraungo du jai giroak.

Prestaketa horretan dabil, esaterako, Iurretako kuadrilla mitiko bat, Mikel Deuna kultur taldea zenaren bueltakoa. Miren Txabarri da kideetako bat, eta orain hamahiru urteko mozo-roa birziklatuko dutela aitortu du, elurretako panpinarena. "Aurten egin duen elurra ikusita, berriro mozo-ro hori jantztea pentsatu dugu", esan du Txabarrik. Hori zapaturako janzkera izango da, baina martitzenean ere mozo-rotuko dira, taldean barik, bakoitza bere erara.

Duela 35 urte mozo-rotu ziren lehenengoz, Goiuria ikas-

tolan, guraso zirenean. Baina, herrian ekitaldirik ez zegoenez, Durangora joaten ziren ospatzera. Horren aurrean, kultur taldeak egitaraua landu zuen 1984ko inauterietarako, eta ez edozelakoa. Besteak beste, Hertzaínak eta Cicatriz en la Matriz (geroko Cicatriz) taldeak ekarri zituzten martitzen karnabal egunean kontzertua jotzeko. Or-

Orain hamahiru urteko elurretako panpinaren mozo-roa birziklatuko dutela aitortu du Txabarrik

dutik hona, ez dute hutsik egin, eta euren kuadrilla Iurretako inauterietako ezinbesteko osagai da urtero.

Miss motzak

Zornotzan partaidetza handia izaten da, eta Marisol Iturriondobeitiarena da tradizioagaz disfrutatzen duen kuadrilletako bat. Duela 30 bat urte hasi ziren parte hartzen, eta orain umee-

kin batera irteten dira jaira. Mozo-ro bat aipatzekotan, miss jantzita irten zirenekoa gogoratu du: "Oso ondo geratu zen mozo-roa. Miss motzak ginen, begitarreak-eta margotuta".

Inauteriez gainera, herriko jaietan ere mozo-rotzeko ohitura daukate, eta estatuak irudikatzen zituzten jantziekin bigarren sari bat lortu zuten behin.

Durangoko Goienkalean kuadrilla ugari ikusi ahal izaten da inauterietako zapatuan; Aritz Bravorena, adibidez. Urtero, gaia zein izango den pentsatu, eta karroza eta guzti irteteko ohitura daukate. "Aurtengoa zein den ezin esan, azken momentuan ibiltzen gara-eta", azaldu du gazteak. Bakero, PPko alderdikide eta erizain jantzita irten izan dira, esaterako. Ez dute faltan izaten barre egiteko eta satira erabiltzeko gogoia.

EGITARAUA

Inauterietako egitarauak, 'Agenda' sailean

BIDALI ARGAZKIAK

webgunea@anboto.org

688 635 041



Iurretako kuadrilla, elurretako panpin jantzita, duela hamahiru urte.



Zornotzako Iturriondobeitia eta bere lagunak.



Bravoren kuadrillakoak, Durangon.



Surrandien maskarak egiteko tailerra.

Surrandiak eta Perubele, jaia animatzeko prest

Surrandiek Plateruenean batzeko deia egin dute

> DURANGALDEA M.O.

Inauterietan badira herririk herri jaiaren piper eta gatz izaten diren taldeak. Durangon surrandien konpartsak girotuko ditu kaleak bihar, eguerdikotriki-poteoagaz hasita. 18:00etan Plateruenean batzeko deialdia egin dute, txokolate beroa jan, eta motorrak berotzen hastea. Handik irten, eta hartzagaz batera kalerik kale ibiliko dira dantzan, Tabira Musika Ban-

dakoekin eta Jaizale taldeko txistulariekin. 20:00etan Andra Mariko elizpean amaituko dute kalejira hori. Zelan ez, surran-

Hartzagaz kalerik kale ibiliko dira dantzan, Tabira Musika Bandakoekin eta Jaizale taldeko txistulariekin

dien maskarak jantzita egingo dute ibilbide osoa. Maskarak auzolanean egin dituzte, herritarrei zabalduetako tailerretan.

Surrandien konpartsa tradizionala da Durangon, baina, luzaroan irten barik egon ostean, duela zenbait urte berreskuratu zuten.

Zornotzan, Perubele

Zornotzan, gaur irtengo da kalea Perubele, inauterietako pertsonaia gaiztoa. Ikasleek egin dute txorimalo itxura eta bele formako burua daukan panpina. Jaiari amaiera emateko, martitzenean erre egingo dute Perubele, aurretik kalejiran ibili ostean.

ITURRIAGA
SUKALDEAK
Gremioen koordinaketa

Troategi xosle, 2-46220 | Abadino - Tif. | Fax: 94 655 07 22 - 605 740 176

URIEN liburudenda
ALOKATZEN DA
JUBILAZIOAGATIK

Prentsa · Aldizkariak · Fotokopiak
· Fax zerbitzua · Telefono txartelak ·
Opariak · Jolasak · Eskola eta bulego gaiak
· Autobus bonoak · Gozokiak

Informazio gehiago, 944 669 360 telefonoan
edo Bixente kapanaga, 10 Iurretan

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

“Twitter izugarrizko haize freskoa izan da emakumeok umorea euskaraz egiteko”

Idoia Torregaraik umoreari buruzko ‘barretartia.com’ bloga sortu du

DURANGO Amaia Ugalde ‘Betaurreko umoreak’ jarrita landu zuen Idoia Torregaraik, eguaztenean, Platerueneko Berbertan elkarrizketa zikloan umorearen eta generoaren arteko lotura.

Badago euskaldunok bereizten gaituen umorerik?

Ez dut emakumeen eta gizonen umorearen arteko bereizketarik egiten, eta ez dut uste euskal umorea existitzen denik. Uste dut umorea erreferentzien gainean oinarritzen dela. Umorea egiteko erreferentziak behar dira, hau da, zerbait komuna behar da. Euskaldunok euskaldun izateagatik baditugu erreferente komun batzuk. Horregatik, grazia egiten diguten gauzak berdintsuak izan daitezke.

Genero ikuspuntutik emakumeon umorea ikusezina da? Egoera hori aldatzen dabil?

Oraindik kostatzen da aldatzea, eta asko dago egiteko. Umore aldetik Kontxu Odriozola, *Bi*

eta Bat telesaila... Fikzioan tradizio bat egon da antzerkigintzari lotuta, eta hor emakumeak izan dira erreferentzia. Umore sormenari dagokionez, oraindik egiten dabilta, baina pauso gehiago eman behar dira.

Sare sozialek zein leku dute umorean eta generoan?

Sare sozialen ekarpena oso positiboa izan da. Iritzia emateko aukera eskaintzen digu emakumeoi. Gainera, Twitterrek, bereziki, izugarrizko haize freskoa ekarri dio euskarari. Une honetan emakume asko jarraitzen ditut Twitterren haien umorea modu naturalean plazaratzen. Leire Narbaiza *Marimaistra*, Mirari Martiarena, Bea Salaberria, Ana Morales, Iraitz Madariaga, Ana Malagon... Beraz, Twitterrek loraldi bat zabaldu du emakumeon artean, eta, bereziki, umorea lantzeko izugarrizko jokoak ematen du. Hor ere emakumeon ekarpena ikusgarri egin du. Tradizionalki emakumeak arlo pribatuan egon direnez, ez

dute aukerarik izan ez umorerik, ez erreferentziarik garatzeko, beraz, sare sozialek ekarpen freskoa egin dute. Hala ere, erreferentzia matxistak ez dira egun batetik bestera desagertuko.

Umorearen inguruko blog bat sortu duzu.

Umorea nire bizitzaren parte oso nabarmena izan da, nire bizitzako hautu bat da, ama oso alaia delako eta aita txiste kontalaria izan delako. Zer edo zer egin nahi nuen, eta horrela sortu zen *barretartia.com*. Oso argi nuen umoreak funtzio sozial bat behar duela eta proiektua partekatu egin behar nuela.

Zein umorista gustatzen zaizu gehien?

Euskaldunei dagokienez, gustatzen zait *Marimaistrak* edo Mikel Pagadik *Herri Txiki* saioan umorea zein modu naturalean egiten duten ikustea. Estatu mailan, berriaz, Eva Hache oso azkarra da, eta bide urratzaile garrantzitsua dela esango nuke.



Gizarte etxearen beharra kaleratu du Herria auzo elkarteak

DURANGO M.O.

*Matadero*a izenez ezagutzen den auzoan, Aramotzen, gizarte etxe bat eraikitzea gura dute auzotarrek. Ez da eskaera berria, baina Herria auzo elkarteak batzarrean era ofizialean onartu du, eta horren berri eman dio prentsari. Elkartearen arabera, ekintzak egiteko eta herritarrek elkartzeko espazio gabezia dago auzoan, eta gizarte etxe batek horri erantzunio lioke. Gaia aztertzeke, udaleko alderdi guztiekin hartu-emanetan egon direla azaldu dute Herriakoeak, eta guztiak ados agertu direla. Gobernu taldeak adostasuna lortu dela baieztatu du, eta, ondorioz, zentroa eraiki aurreko diagnostikoa egiten hasi dira; enpresa bat kontratatu dute zeregina horretarako.

Momentuz ez dago gizarte etxearen eraikuntzagaz hasteko eperik zehaztuta, ezta diru partida zehazirik ere.

Bestalde, elkartearen egoitza etorkizuneko gizarte etxean egotea gura dute auzotarrek, eta udalagaz hori hitzartzea da haien asmoa.

Geologia ikasle onenak dira Altube eta Apraiz

Geologia olinpiada irabazi dute institutukoek

DURANGO Markel Onaindia

Durangoako Frai Juan Zumarraga institutuko ikasle bi, Txaber Altube eta Iker Apraiz, izan dira EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak antolatzen duen geologia olinpiadako irabazleak. Sei ikastetxek parte hartu dute lehiaketan, eta, Durangaldeko gazteez gainera, Pedro Ramírez gernikarra izan da hirugarren irabazlea. 50 galdera erantzun behar izan zituzten, eta mineralak eta fosilak identifikatu ere bai. Jasotako sariak

lehiaketagaz lotura dauka. Izan ere, euskal kostaldeko geoparkeko flyscha ikustera joango dira, itsasontzi batean egingo duten bisita gidatuan. Bestalde, martxoaren 21ean, Alacanten jokatu den estatu mailako finalean ere parte hartuko dute.

Apraizen arabera, “esperimentzia probatzeko” eman dute izena lehiaketan. Ilusioa egiten die flyscha ikusteak, baina, Altubek dioenez, “Alacantera joateak ilusio handiagoa”, aste-buru-pasaz gozatuko dutelako.



Altube eta Apraiz, Institutuko atarian.

Indarkeria sexista kasu bi salatu dituzte asteen, Durangon

DURANGO M.O.

Ertzaintzak informatu duenez, atzo goizean, gizon bat auzipe-tu zuten Durangon indarkeria sexista egotzita, bikotekidea mehatxatu eta iraintzeagatik. Eraso 08:45ean gertatu zen, Landako etorbidean, eta abisu baten ondorioz bertaratu ziren ertzainak. Ailegatzean, gizona identifikatu zuten, eta, ostean, auzipetzea erabaki zuten.

Bigarren kasua joan zen domekan izan zen. Ertzaintzak 27 urteko gizon bat atxilotu zuen, genero indarkeria egotzita. Emakumea izan zen abisu eman zuena, eta adierazi zuen ez zela eraso egiten zion lehenengo aldia; baina ordura arte ez zuen salatu. Ertzaintzaren arabera, emakumeak lan egiten duen etxean agertu zen bikotekidea, eta iraintzen eta jotzen hasi zitzaion. Ondorioz, ospitalera eraman zuten. Gizona bere kabuz agertu zen ertzain-etxean, eta eraso egin izana aitortu zuen. Eraso gaitzesteko hainbat herritar batu ziren martitzenean mugimendu feministak deitutako mobilizaziora.

PSE-EEK Tabirako biribilgunearen gestioaz kritika egin dio EAJri

DURANGO M.O.

Tabirako biribilgunearen obran Aldundiak eta udal gobernu taldeak garatutako gestioa kritikatu du PSE-EEK. Proiektua “gabezia larriekin eta udal arduradunekin elkartu barik” adjudikatu izana txarto ikusi dute sozialistek. Bederatzi hilabeteko obra amaitzean, Gasteiz bidea kalea hartu gura duten auto gidariekin Intxaurrendoko biribilgune-raino joan beharko dute lehenengo, eta handik buelta eman Gasteiz Bideko sarreraraino.

Pilar Rios bozeramaile sozialistak prentsa ohar bidez kontatu du egitasmoari zuzen-keta batzuk egin zizkiotela, eta teknikariek ondo ikusi zituztela. Ondorioz, ez du uler-tzen proiektuak bere horretan aurrera egin izana. Riosen arabera, EAJri sarritan eskatu dio Aldundiagaz batzartzeko, baina ez ei diote kasurik egin.

Zinegotziaren ustez, biribilgunea “txarto diseinatu” dago, eta duela hogeitaz urteko “akatsa” errepikatuko dute: “Akats horiek herritarrok ordaintzen ditugu azkenean”.

Ingurumen Iraunkortasunaren Euskal Azoka



berdeago

Otsailak 20, 21, 22
Durango, Landako Gunea

Otsailak 20

12:30/15:00 Berdeago 2015 edizioaren inaugurazioa

HITZ BERDEA GUNEA

AHT, begirada objektibo bat

17:30 /18:00 AHT, ezezekoaren arrazoiak (Iñaki barcena, UPV/EHU-ko irakaslea eta Ekopol-eko partaidea)

18:00 /18:30 AHT-ren bideragarritasunari dagokion ikerketa (Roberto Bermejo, UPV/EHU-ko irakaslea eta Ekopol-eko partaidea)

ZIRKULO BERDEA GUNEA

17:00 /19:30 Birziklapen eta berrerabilpen tailerrak (+6)

20:00 Itxiera

Otsailak 21

10:00 Irekiera

HITZ BERDEA GUNEA

Gure eredu energetikoaren errealitatea

10:30 /11:00 Fracking-a EAEn (Mikel Otero, "Fracking ez" plataformako partaidea)

11:00 /11:30 Momentuko eredu energetikoa eta horren jatorria (Aitor Urresti, UPV/EHU-ko irakaslea eta EQUO-ko partaidea)

11:30 /12:00 Momentuko eredu energetikoaren alternatibak (Leire Gorroño, planifikatzaile energetikoa)

Kutsaduraren ondorioak gizakiarengan

16:15 /16:45 Ingurugiro kutsadura esperientziak Muskizen (Anticoke elkarte)

16:45 /17:15 Aldaketa klimatikoak, ondorioak osasunean (Aline Chiabai, bc3-ko ikertzailea)

Erregai eta ibilgailu alternatiboak

17:30 /18:00 Hidrogenoa izango al da etorkizuneko erregaia? (Lorenzo Nasarre, I+G ingeniaria Aragoiko hidrogenoaren fundazioan)

18:00 /18:30 Ibilgailu eta erregai alternatiboen inguruan (Iñigo Ochoa, blogger-a www.actualidadmotor.com-en)

18:30 /19:00 Auto hibrido batekin bizitako esperientziak (Luis Sutil)

ZIRKULO BERDEA GUNEA

10:00 /13:00 Brikoziencia (+16) (Luis Sutil, Durangoko Maristen irakaslearen eskutik)

10:00 /11:30 Zure eguzki gidaria egiten ikasi

11:30 /13:00 Pertier zelulak, Seebeck efektua, erabilera praktikoa

17:00 /19:30 Birziklapen eta berrerabilpen tailerrak (+6)

20:00 Itxiera

Otsailak 22

10:00 Irekiera

HITZ BERDEA GUNEA

Ekonomia berdea, eredu jasangarriago bat

10:30 /11:00 Jasangarritasun eza, askatasuna eta banaketa (Alejo Etchart, ekonomilaria trantsizioan eta Ekopol-eko partaidea)

11:00 /11:30 Ekonomiaren inguruko ikuspegi biomimetikoa (Roberto Bermejo, UPV/EHU-ko irakaslea eta Ekopol-eko partaidea)

11:30 /12:00 Energia soziala (Leire Gorroño, planifikatzaile energetikoa)

Eraginkortasun energetikoa etxean

16:15 /16:45 Eraikuntzan, energia berriztagarriak (Rubén Amparan)

16:45 /17:15 Etxean energia aurrezteko kasu praktikoak (Josu Salazar)

Hondakinak, arazo larria gure gizartean

17:30 /18:00 Berrerabili eta etxeko aparailuen zaharkitzapena (Miguel Alcantara, Ekorreparako koordinatzailea)

18:00 /18:30 Hiri-hondakinen kudeaketa eta tratamendua (Gorka Bueno, UPV/EHU-ko irakaslea)

ZIRKULO BERDEA GUNEA

10:00 /13:00 Brikoziencia (+16) (Luis Sutil, Durangoko Maristen irakaslearen eskutik)

10:00 /11:30 Lebitazio magnetikoa (Maglev trenaren printzipioak)

11:30 /13:00 Erregai-pila eta egunerokotasuneko erabilerak

17:00 /19:30 Birziklapen eta berrerabilpen tailerrak (+6)

19:30 Itxiera



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



DURANGO
Udala - Ayuntamiento



Euzko Inberturaren
Garapenerako Erakundea



Euskotren



EROSKI

Ikasleek txirrindulari ohien aholkuak entzun dituzte

Bizikletan ibiltzeko aholkuak jasoko dituzte ikasleek



Atzo, Kurutziaga ikastolan egindako ginkana.

DURANGO Markel Onaindia Stop Accidentes elkartearen eskutik, bizikletan era egokian eta seguruan ibiltzeko aholkuak jasoko dituzte Durangoko hainbat ikaslek. Duranguesa txirrindulari elkarteak kideak eta txirrindulari profesional ohiak izango dira irakasle; elkarteak azalduko dituzte bizikletan ibiltzearen abantailak zeintzuk diren, eta txirrindulariek euren esperientziaren berri emango dute. Asteon Kurutziaga ikastolan hasi dute berbaldien erronda, eta hurrengo asteetan beste ikastetxe batzuetara joango dira. DBHko lehenengo mailako ikasleak egongo dira entzuten guztietan.

Elkarbizi deitu diote egitasmoari, eta Stop Accidentes garatzen dabilen bide-hezkuntza-

ko programaren parte da. Durangoko Udalak finantzatu du, eta mugikortasun seguruaren

Berbetan ibili ostean, Pedro Horrillo eta Unai Etxebarriagaz batera ginkana egin zuten

balioak hedatzea da helburu nagusia, zirkulazioko oinarritzko arauak erakusteagaz batera.

Teoria eta praktika landuko dituzte, Kurutziagan egin duten moduan. Atzo, ikasgelan berbetan ibili ostean, Pedro Horrillo eta Unai Etxebarria txirrindulari ohiekin ginkana egin zuten ikasleek. Eguaztenean, oster, Unai Uribarri izan zen irakasle.

Toñak Kode Etikoaren Batzordearen esku utzi du bere kargua

18 hilabeterako gaitasunik gabe utzi dute, eta epe horretan ezingo da konkurtso-administratzaile izan

DURANGO Jone Guenetxea

Angel Toña Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburu izendatu eta gutxira, albistearen berri eman du *Gara* egunkariak: Angel Toña, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak ezarritako zigor baten ondorioz, ezingo da konkurtso-administratzaile izan hemezortzi hilabetez. Talde berean ziharduten Fundifes (Durango), Otsaila XXI eta Badator Gestión 2004 enpresen konkurtso-administratzaileetako bat izan zen Toña. Auzitegiak sailburuaren kontrako epaia ebatzi du, likidazioan ordainketen ordena aldatu, eta enpresa horiek Gizarte Segurantzaren Diruzantzagaz eta bost langileekin zuten zorra atzeratzeagatik. Epailearen iritziz, enpresa horietako konkurtso-administratzaileek ez zituzten kontuan hartu Gizarte

Segurantzari eta bost langileei ordaintzeko jakinarazpenak.

Albiste publiko egin ostean, Toñak Jaurilaritzaren Etika Batzordearen esku utzi du bere kargua, Iñigo Urkullu lehendakariari azalpenak eman eta gero.

EH Bilduk, PPk eta UPDk Toña kargutik kentzea eskatu dute, eta PSE-EEk lehendakariari azalpenak eskatu dizkio. Sindikatuak, aldiz, ez dute Toñaren jokabidea salatzen arrazoirik ikusten.

Fundifesen aurrekariak

Durangoko Fundifes enpresa 2008ko maiatzean itxi zuten. 2010eko otsailean, 60 langile ohi inguru Durangoko udalbatzarrean joan ziren, enpresak hartzen dituen 16.000 metro koadroko lurak birkalifikatu zitezela eskatzeko. Horrela, udaleko alderdi politikoei birkalifikazio proposamenaren berri eman zieten. Gobernu taldeak gehiegizkotzat jo zuen proposamena. Ezker abertzaleak “*pelotazo* urbanistikoa” egin gura izatea kritikatu zuen. Beraz, langileen proposamena ez zen aurrera irten. Langileek hainbat mobilizazio antolatu zituzten birkalifikazioa eskatzeko.



Durangoko osoko bilkura, 2010ean.

Marixurriek ekimenez betetako agenda osatu du

ATXONDO J.D.

Marixurriek aisialdi taldeak aurtengo ekimenen agenda osatu du, eta, aurreko urteetan legez, ildo askotariko ekitaldiak egingo ditu. Esaterako, inauterietarako, datorren asteko martitzenerako, mozorro desfileak eta jolasak antolatu ditu pilotalekuan.

Martxoan, artile ikastaroa abiatzeko asmoa dute taldekiek. Bufandak, eskularruak eta mota askotako janzkiak egiten ikasiko dute, esaterako, kakorraz-lana eta puntua erabilita. Iaz antolatu zuten lehenengoz, eta ekimenaren balorazio positiboa egin zuten; ondorioz, aurtun errepikatu egingo dute.

Marixurriek agendan gorri markatuta duen egun bat martxoaren 23a da. Egun horretan, euskararen aldeko Korrika Atxondotik igaroko da 13:15 inguruan, eta, modu batera edo bestera, parte hartzeko asmoa dute. Horretaz gainera, herriko auzoak eta ermitak ezagutzeko ibilbide bat ere antolatu gura dute aurtun.

Martxoaren 8a iragarriko duen kartela aukeratuko dute

ABADIÑO Itsaso Esteban

Lehiaketa antolatu du Abadiño Udalak, martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna iragarriko duen kartela hautatzeko. Otsailaren 20ra arteko epea dago kartel lehiaketan parte hartzeko. Lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira, Traña-Matienako Errota kultur etxean edo Zelaletako Udal Mediatekan, eta nahi duenak kartela udaleko Berdintasun Arlora postaz bidaltzeko aukera ere izango du. Bi sari banatuko ditu epaimahaiak: 500 euroko saria emango diote kartel irabazleari, eta kartelik onena egiten duen herriko partaideari, berriaz, 150 eurokoa.

Gainera, lanak lehiaketara aurkeztu dituzten marrazkilaria eta diseinatzaileen lanak bilduta, erakusketa ipiniko dute martxoaren 10etik 27ra, Traña-Matienako Errota kultur etxean.

Lehiaketaren baldintzen inguruko informazio zabalagoa www.abadiño.org webgunean dago ikusgai.

Euriteak harea barik utzi du pasealekuko zati bat

Udalak erreka garbitzeko eskatu dio URA agentziari

IZURTZA J.D.

Orain aste bi izandako euriteak kalteak eragin zituen Elizalde auzoan dagoen pasealekuan. Santo Tomas ermitara heldu aurretik, bidegorria zeharkatzen duen egurrezko zubitxo dagoen ingurutik Uresandiko Andapara bitarteko guneetan harea eraman du urak, euritea-

ren eraginez errekek gainezka egin ostean. Pasealeku hori berria da; iazko udan egin zuten. Udalak erreka ibilgua garbitzeko eskatu dio Uraren Euskal Agentziari, etorkizunean horrelakorik ez gertatzeko. Udalak gune horiek konpondu egingo ditu, eta lanak egiteko diru-laguntzak lortzen saiatuko da.



Santo Tomasera heldu aurreko bidegorri zatian harea falta da.

Kontzertuak Hiltegixen, 16. urteurrenean

Iluntzean bakarlarien kontzertuak izango dituzte

BERRIZ Amaia Ugalde

Gaztetxearen 16. urteurrena ospatzeko, kontzertuak izango dituzte asteburuan, Hiltegixen. Gaur, barikua, txokolatada egingo dute 19:00etan, eta tripa bete eta gero, hiru bakarlariren musika entzuteko aukera egongo da 20:30etik aurrera. Gitarra lagun, Izaro Andres mallabitarra, Rory Kilroy (Joseba Romero) berriztarra eta Pedro Pastor madrildarra igoko dira gaztetxeko oholtzara. Gaurko kontzertuei ez diete preziorik ipini asanbladako kideek; borondatearen truke entzun ahal da bakarlariak.

Bihar, berriz, rock doinuak izango dituzte gaztetxean. Tania de Sousak eskainiko du lehenengo kontzertua taldekiekin batera, eta, horren os-

tean, Barakaldoko Herri Oihua taldea izango da gaztetxean. Sarrerak bost euro balioko du, eta 23:00 aldera hasiko dira kontzertuak.

Izaro Andres, Rory Kilroy eta Pedro Pastorren kontzertuak izango dituzte gaur, 20:30etik aurrera

Itxura berria

Jaiak amaitu zirenetik, Hiltegixe barrutik margotzen ibili dira asanbladako kideak. Lan horietarako gaztetxearen sortzaile eta grafitilarien laguntza izan dute. Beraz, itxura berria estreinatuko du gaztetxeak bere urteurrenean.

Ikusmen urritasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetu daiteke laguntzagaz

SEEBV elkarteko bazkide den Lourdes Arrizabalaga optometristak eta Maider Llanosek ikusmen urritasuna lantzen dute Landako optikan



Ikusmen urritasuna eguneroko bizimoduan egiten ditugun jardueretan oztopo handia izaten da. Egunkaria irakurri, paseo bat eman, telebista ikusi, plan txatu... Gaixotasun bat izan ez arren, ikusmenean muga hori izateak jende askoren bizimodua baldintzatzen du. Baina ikusmen urritasuna aipatzen denean ez gabiltza itsutasunaz berba egiten. Pertsona batek formak desberdintzeko gaitasuna badauka, bizi kalitatea hobetu ahal du laguntza emanez gero.

Bizkaian ikusmen urritasuna lantzen duten hiruzpalau zentro daude. Landako optika da horietako bat. “Ikusmen urritasuna duten pertsonak betaurre-

Bizkaian ikusmen urritasuna lantzen duten hiruzpalau zentro daude, eta Landako optika da horietako bat

Zerbitzuaren helburua pertsona horrek ikusten duen apurra aprobetxatzea eta pertsona horri laguntzea da

ko arruntekin ez dute nahikoa izaten”, azaldu du Lourdes Arrizabalaga Landako Optikako arduradunak. Ematen duten zerbitzuaren helburua pertsona horrek ikusten duen apurra aprobetxatzea eta pertsona horri laguntzea da, Maider Llanos lankideak dioenez.

Hoberen ikusten duen begiak ikusmenaren %10 baino ez duenean, ONCEk aholkularitza ematen du. Baina jende asko dago hori baino gehixeago ikusita ere arazoak dituen. Ikusmen urritasunak sendabiderik ez izan arren, teknologiak gaur egun hainbat baliabide eskaintzen ditu. Pertsona nagusi askok DMAE (ikusmenaren gainbehe-

ra) izaten dute. Katarata edo pigmentu-retinosiaren eraginez ere sortu daiteke. “Betaurreko bereziekin, eta jarrera jakin batzuk ikasiz gero, ikusmen apur horri etekin handia atera da- kioke, eta, ondorioz, bizimodua erraztu”.

Hainbat baliabidea
Ikusmen urritasuna dutenei laguntzeko hainbat baliabide dituzte Landako Optikan. Lupak, filtroak, mikroskopiaok, telemikroskopiaok eta laguntza elektronikoak. “Kasu bakoitza sakon aztertzen dugu, eta lagun- garri izan daitezkeen kasuan kasuko baliabideak ematen diz- kiegu”.

Ordutegia

Astelehenetik barikura:

09:30-13:00

16:30-20:00

Zapatuetan, goizez.

Helbidea

Juan Mari Altuna, 22
DURANGO

Kontaktua

Tel.: 946 814 999

landako.optika@gmail.com

f landakooptika

Landako optikak, ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Durangon, berritzailea da optometriaren esparruan. Ikasteko arazoan gainean ohartarazten du, eta gaitz horiek tratatzen ditu, ikusmen disfuntzioak aintzat hartuta.

GRADUAZIOAK
BEGIEN AZTERKETA
UMEEN OPTOMETRIA
BEGIEN TERAPIA
UKIPEN LENTEAK
TONOMETRIAK
TOPOGRAFIK
IKUSMEN URRITASUNA
AUDIOLOGIA
OSASUN OKULARREAN
ESPEZIALISTAK



Euriteek utzitako ura batzeko biltegia inauguratu dute Arriandin

Ur-araztegiaren lana erraztuko du 25.000 metro kubiko dituen biltegiak



Martitzenean inauguratu zuten ekaitzetarako andela edo depositua.

IURRETA Amaia Ugalde
Euri askoko egunetan, Arriandiko ur-araztegiak gainezka egiten du, eta ezin izaten du ur guztia garbitu. Arazo horri aurre egiteko, ekaitz andela eraiki dute, euriteetako urak bertan bildu, eta Ibaizabalera tratatu bako ur kantitate gutxiago isur-

tzeko. Ur Patzuergoak, Aldundiak eta Uraren Euskal Agentziak finantzatu dute 6,3 milioi eurotik gorako azpiegitura.

Urtarrila amaieran izandako egun euritsuetan ipini zuten martxan ekaitzetarako biltegia, eta bertako lau deposituak bete ziren orduan: 25.000 metro kubi-

ko. Ekaitzetarako depositua euri asko egiten duenean ipiniko da martxan hemendik aurrera, eta hori urtean 50 aldiz izango dela kalkulatu dute. Orain arte, euri asko egin izan duenean ur-araztegiak ezin izan du ur bolumenajasan, eta, ateak zabaltu ostean, tratatu bako ura joan izan da Ibaizabalera. Orain, biltegian edukiko dute ur hori, eta aurreraxeago pasatuko da araztegitik. Urtean, gutxi gorabehera, 200.000 metro kubiko hondakin-ur gutxiago isuriko direla azaldu dute.

Arriandiko ekaitzetarako depositua Bizkaiko bigarren handiena da, Etxebarrikoaren atzetik -75.000 metro kubiko ditu-. Lanetan 54 enpresek parte hartu dutela nabarmendu dute inaugurazioan. Ekitaldian izan dira Eusko Jaurlaritzaren Uraren Euskal Agentziako ordezkariak, Ur Patzuergokoak, Bizkaiko Foru Aldundikoak, eta Bilboko eta Iurretako alkateak.

Odola Askondon emango dute martxotik aurrera

Odol-emaile beteranoak saritu zituzten atzo

IURRETA Amaia Ugalde
Martxoaren 18tik aurrera, Iurretako anbulatorioa utzi, eta Askondon, oinezkoentzat

egokitutako lekuan, emango dute odola. Emoixu odol-emaileen elkarteko Iñaki Etxebarriak azaldu duenez, "leku



Iurretako 'Odol-emaile bikainek' saria jaso zuten.

ikusgarriagoa" denez, jende gehiago hurreratzea espero dute. Orain arte bezala, hileko hirugarren eguaztenetan eman ahalko da odola, eta Txonpolo elkarteak emaileentzako otordua prestatzen jarraituko du. Iñaki Etxebarriak gazteen partaide-tza eta donazioen konstantzia behar direla nabarmendu du.

Odol-emaile bikainak

Emoixuk 25 urte beteko ditu aurten. Urteotako lanari esker, Iurretan bada odola ehun aldiz baino gehiago eman duenik ere. Beteranoen ahalegina saritzeko, atzo, Bizkaiko odol-emaileen elkarteak *Odol-emaile bikainak* omendu zituen. 2006tik gaur arte, odola 60 aldiz baino gehiagotan eman duten andreak eta 75 aldiz baino gehiagotan eman duten gizonak omendu zituzten; tartean hamaika iurretarrak.

'Natura Mañarian', aurtengo argazki lehiaketako gaia

MAÑARIA Joseba Derteano

Udalak iragarri du dagoeneko aurtengo argazki lehiaketa. Martxoaren 2tik 27ra bitartean aurkeztu beharko dira argazkiak, eta lana egiteko gaia *Natura Mañarian* izango da. Beraz, herriko paisaia eta ondarea izango dira protagonista. Arauen arabera, argazki horiek gaur egungoak izango dira, otsailean egindakoak.

12 eta 17 urte bitartekoen atalean, 100 euroko txartel bat jasoko du irabazleak, eta, 18 urtetik gorakoen atalean, 200 eurokoa argazki onena ateratzen duenak. Udaleko Kultura Batzordeko presidenteak, eta zenbait argazkilarik eta artistak osatuko dute epaimahaia.

Sari banaketa

Apirilaren 13tik 30era erakusketan ipiniko dituzte argazkiak, eta irabazleak maiatzeko aste kulturalean iragarriko dituzte. Sari banaketa maiatzaren 17an egingo dute.

Bizkaibuseko taxiak erabiltzaile guztiak hartu beharko ditu

GARAI Markel Onaindia

Udalak kezka agertu zion Aldundiari Bizkaibuseko taxiaren funtzionamenduaren harira. Batetik, taxian lau sartzen direnez, erabiltzaile gehiago egonez gero, horiekin zer gertatuko den argitu nahi zuen udalak. Bestetik, Barik txartela ezin zela erabili kritikatu zuen. Bada, Aldundiak Gontzal Sarrigoitia alkateari erantzun dio, beharrezko denetan, taxiak bidaia bat baino gehiago egin beharko duela. Beraz, ez da inor zerbitzu barik geratuko. Gainera, txartelaren makinan ere instalatuko dute.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ

EAJ



Badago oraindik zereginik

Antza danez, krisialdi anker honen azken zatien zantzuak sumatzen ari dira adituak. Antza danez, datu ekonomikoak, makroekonomikoak, nazioartekoak, kosmikoak... hobetzen ari dira. Antza danez, Amerikako Estatu Batuek amildegi fiskal beldurgarria saihestu dabe, eta Europa zaharrak ez deustso gehiago arretaz begiratu behar izango arriskuprima madarikatuari. Ez dot zalan-tzan jarriko. Ez naz ikamika teknikoetan sartuko. Ez dodaz eztabaidatuko datu mikro, makro edo dana dalakoak.

Beharbada egia izango da hobera egiten ari dala munduko egoera ekonomiko orokorra. Agian sumatzen hasiak dira hobekuntza ezaugarriak. Baina ni Durangon bizi naz, durangarra naz, eta nire herrian badago oraindik be-laguntza ekonomikoa behar daben familia eta norbanakorik. Egunerokoan datu ekonomiko potoloen eragina igarri egiten ez daben auzokideak, gure lagunak, gure senitartekoak.

Nik neuk, eta nigaz lanean ari diren EAJko zinegotziek, pertsoneri begietara begiratzan deusegu, aurpegiak ikusi egiten doguz. Eta eguneroko lanean gizartearen, durangar ororen, bizikaltate hobetzen saiatzen gara. Inor bide er-tzean baztertu barik, gure herriko elkarteakaz lankidetza estuan (amaibako eskerrak Caritas eta Jaed elkartei) eta durangarron elkartasunari dei eginez. Danak gara beharrezkoak arazo honi aurre egiteko, dandanak batera krisialdia gaintitzeko. Bide luzea egin dogu, lan handia egin da, baina badago oraindik zereginik, eta guztion artean egingo dogu. Pertsona da ardatza.

Chimeneas
Cerámicas **MACOBER**
Sanitarios

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DURA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

AHTaren desjabetzeek 30 lur-jaberi eragingo diete



AHTaren Zornotza-Zornotza tartea.

ZORNOTZA J. Derteano

Abiadura handiko trenak 13,35 kilometroko tartea du Zornotzan. Hiru zatitan dago banatuta, eta denak eraikitze fasean daude. Lanak egin ahala, ibilbideak “aldaketa txiki batzuk” izan ditu gune batzuetan, eta horrek lur-jabe batzuei eragin die. Horregatik, Adif erakundeak jabe horien lurak beraganatzeko desjabetze prozesua abiatu du, eta datorren eguaztenean espero du prozesu horregaz amaitzea. 30 lur-jabe deitu ditu desjabetze aktak sinatzera eguaztenerako, udaletxean.

Lemoa-Zornotza eta Zornotza-Zornotza tartetean daude 30 lur-jabeen lurak. Prozesuak Nahitaezko Desjabetzeen Legearen 52. artikuluan du sostengua. Lurrek erabilera publikoa edo interes soziala eduki bade-

zakete, lege horrek ondasunak berehala eskuratzeko eskumena ematen dio Estatuari. Beraz, prozesu honetan lurak desjabetzearen ondorioz jaso beharreko ordain ekonomikoa izango da eztabaidagai. Alde bien sinaduragaz batera, Espainiak Bizkaian duen ordezkartzeko kide Carlos Coscolin-en eta Zornotzako alkatearen sinadurak beharko dituzte aktek, tramitea baliozkoa izateko. Coscolinen esanetan, “kasu gehienetan aurretik berba eginda eta adostuta egoten da zenbatekoa, nahiz eta batzuetan egoten diren ados ez dauden lur-jabeak”.

Bidean izandako aldaketei buruz, ostera, obren muinari ez diotela eragiten adierazi du. “Lanak egiten diren bitartean sortzen diren beharrian edo aldaketa txikiak dira”.



PSE-EEko Pilar Ríos, Durangoko alkatezaren bila

M24 Markel Onaindia

Pilar Ríos izango da PSE-EEren hautagaia Durangoko alkatezarako; atzo aurkeztu zuten era ofizialean. Ekitaldian alderdiko

eta UGTko hainbat kide egon ziren, tartean Carlos Totorika Bizkaiko ahaldu nagusi izateko hautagaia.

Riosek azaldu zuen, adibidez, enplegu planak eta alokairuan emandako etxeak bultzatu gura dituztela. Gainera, Correosen eraikin zaharra kultur etxe bihurtzea proposatu zuen.



Pilar Ríos, hainbat alderdikidez babestuta.

Joseba Azkarraga soziologoagaz kafe tertulia

M24 M.O.

“Prozesu parte-hartzaile historikoa eta ilusioz betetakoa bizi-tzen gabiltza”. Horrela azaldu dute EH Bilduko kideek maiatzaren 24ko udal hauteskunde-tara begira garatzen dabiltzan bidea. Urtarrilean batzar zabal-egintza egin zuten, eta han sortutako lantaldeek ibilbide propioa edukiko dute aurrerantzean. Esaterako, 17an azpiegituren arloa landuko dute, eta 18an elkarbizitzarena; biak izango

dira 19:00etan, Pinondo Etxean. Gainera, programan badago bereizten den ekitaldi bat: Joseba Azkarragagaz egingo den kafe tertulia. Soziologoak Durango-ko sozioekonomiari eta tokiko politikari buruz hitz egingo du otsailaren 19an, 19:00etatik aurrera, Plateruenean.

EH Bilduren helburua “politika egiteko modu zaharrek-ekin eta udala bulego ilunetatik kudeatzeko indarrean dagoen ohituragaz” amaitzea da. Herri-tarrek “arduradun herriak” gura dituztela dio koalizioak, eta aldaketa herritarren partaide-tzatik etorriko dela. Martxoan aurkeztuko dute zerrenda.

> DURANGALDEA ASTEON

Sanprudentzioak prestatzeko batzarra

ABADIÑO > Traña-Matienako jaiak prestatzen hasteko batzarra egingo dute datorren astelehenean, otsailak 16. Errota kultur etxean batuko dira, 19:00etan, eta batzar irekia izango da: udaleko Kultura Saitetik parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei, tabernariei, kuadrillei eta auzoko elkarte guztiei.

Euskaldun zaharrak faltan Berbalagunen

BERRIZ > AEK-ko arduradunek azaldu dutenez, euskaldun zaharrak behar dituzte Berrizen, euskara praktikatzeko Berbalagun egitasmoan. Momentu honetan hiru talde daude, eta kide berrien bila dabilta: ordutegia malgua dela gogorarazi dute. Durangaldeko Berbalagunen telefonoa honako hau da: 639 40 07 86.

Greatest Hits Gaua prestatzeko batzarra

DURANGALDEA > Greatest Hits Gaua jaialdiko antolatzaileek batzar informatiboa egingo dute aurtengo edizioa antolatze-ko. Eskualdeko musika taldeei egin diete deia, eta otsailaren 23an, 19:00etan, batuko dira Platerueneko anfiteatroan. Informazio gehiagorako: greasthithsgaua@dkproduksioak.



‘Jostunak’ dokumentala

Gutun honen bitartez, *Jostunak* dokumentalaren emanaldia gonbidatu nahi zaitu Durangoko Gure Esku Dago ekimenak. Otsailaren 20an emango dugu filma, Plateruena Kafe Antzokian, arratsaldeko 20:30ean. Angel Oiarbidek aurkeztuko du emankizuna.

Dakizunez, erabakitze eskubidearen aldeko aldarria hauspotzeko sortua da Gure Esku Dago herri dinamika. Oinarrizko hiru printzipio bul-tzatzen ditu:

1. Herri bat gara.
2. Herri gisa gure etorkizun eta estatus politikoa erabakitze eskubide osoa daukagu.
3. Herritarren garaia da.

Ugariak dira azken garaiotan egin ditugun ekintzak. Aipagarriena, iazko ekaineko Durango eta Iruñea arteko giza kate erraldoia, zeinetan 150.000 herritarrek eman genion eskua elkarri, Euskal Herriko errepideak hartuz.

Gure Esku Dago herri dinamika mugimendu iraunkor bilakatzea erabaki zuen iaz. Ondorioz, erabakitze eskubidearen aldeko jardunean se-

gituko dugu, harik eta eskubide hori gauzatzen den arte.

Aurten, besteak beste, ekimen nazional erraldoi bat egingo dugu ekainaren 20an. Ezberdinen arteko borondateak ehunduz, herritarren atxikimendua oihaltzaren bildu, elkarri josi, eta hautestontzi erraldoiak osatuko ditugu herrialde bakoitzean data horretan.

Bidea adostu, eta erabakitze eskubidea gauzatzeko da gure asmoa, eta zu nahi zaitugu, gu guztio-kin batera, bidelagun. Gonbidatuta zaude, beraz, Gure Esku Dago antolatuko dituen ekintzetan parte hartzera.

-Apirila bitartean mahaiak jarriko ditugu herrian, bakoitzak bere borondatea oihaltzaren adierazi ahal izan dezan.

-Apirilak 25: Ehuntze Eguna. Herritarren mezuz betetako oihaltzaren zatiak josiko ditugu.

-Ekainak 20: Herritarrek betetako oihalekin hautestontzi erraldoiak osatuko ditugu hiriburuetan.



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Berbaz

Ianire Estebanez | Psikologoa | Bilbo, 1976

“Gazte askorentzat sare sozialak haien bizipenak kontatzeko egunkariak dira”

“Maitasunak nahasten dituen nesKentzat” Estebanez psikologoak ‘minoviomecontrola.com’ bloga sortu du



“**Gazteek gustuko eta onartuak izan gura dute sare sozialen bitartez**”

► **BERBAZ** Jone Guenetxea
Teknologia berriek komuni-kaziorako eta hezkuntzarako tresna interesgarriak sortu dituzte. Era berean, sare sozialek bizitza paralelo bat sortu dute. Gazteek une oro eta egunero erabiltzen dituzte Whatsapp, Instagram, Twitter eta Facebook, adibidez. Komunikatzeko erraztasun horrek, kontrolerako eta jazarpenarako espazioak zabaltu ditu. Ianire Estebanez psikologoak gazteen eta sare sozialen inguruan jardungo du lurretako Orobiogoitia ikastetxean, eta Durangoko Kurutzia ikastola ere bisitatuko du.

Zer ikuspuntutatik landuko dituzu sare sozialak Durangaldeko ikastetxeetan?
Familiak eta irakasleekin hausnartuko dugu gazteek alde emozionalatik teknologia berriak zelan erabiltzen dituzten. Formazio saio asko arrisku digitaleri buruzkoak izaten dira, baina sare sozialen eta teknologia berrien erabilera gure bizitza pertsonaletan duen eraginaz berba egin nahiko nuke oraingoan. Gazteei dagokienez, oster, mugikorrei lotuta egoteak sortzen dituen arazoei buruz berba egingo dugu.

Zer lotura dago sare sozialen eta hezkuntza emozionalaren artean?
Sare sozialetan ez gara datuak eta argazkiak bakarrik. Gure historia, bizipenak eta sentimenduak ere agertzen dira bertan; beraz, batzuetan, konturatu barik, bizi ditugun arazo asko sare sozialetan sortu daitezke. Ikusi ditugun eta espero ez genituen iruzkinak, desilusioak, frustrazioak, ezusteko topaketak, hausturek eta irainek eragina izan dezakete gure bizitzetan. Zentzu horretan, garrantzitsua da emozionalki ondo kudeatzea sare sozialetan jartzen ditugun ilusioak eta perspektibak.

Gazteek zein hartu-eman dute sare sozialetan?
Berehalakotasun handiagaz eta euren bizitza errealek bantaketarik egin barik ibitzen dira sare sozialetan. Beraz, pentsatu,

“**Ez dute adierazi gura dutenari buruz hausartzeko, eta filtro gabe idazten dute**”

ezagutu, berba egin, sentitu eta bizitzeko euskarri gisa ikusten dituzte. Une oro konektatuta egoteak elkarrizketa ugari izatea errazten du, baina, era berean, sare sozialetatik deskonektatzeko arazoak ekartzen dituzte, dena kontatzen dute bertan, ondorioei erreparatu gabe. Gazte askorentzat sare sozialak haien bizipen guztiak kontatzeko egunkari pertsonalak dira. Idatzi gura dutenaz pentsatu beharrean, filtrorik gabe idazten dute; adibidez, momentu zirrargarrien inguruan hitz egiten dute, eta, askotan, kontraesanak plazaratzen dituzte. Gainera, sare sozialetan gure buruari buruzko irudi bat eman gura dugu, eta hori itxurakerian sartu gaitezke, edo besteei gustatzen zaien hori irudikatu dezakegu. Besteen onespina bilatzea nerabezaren ezaugarri bat da. Gustuko eta onartuak izan gura dugu, eta hori bilatzen dute sare sozialen bidez. Horregatik, batzuetan eredu sexistak irudikatzen dira, eta horiek ez dira beti aniztasunaren onarpenagaz bat etortzen.

Guraso eta irakasleak prest daude errealitate berri honi aurre egiteko?
Uste dut guraso askok beldurrez ikusten dutela haien seme-a-

labak mugikorrera engantxatuta bizi direla, eta ez dakite egoera hori zelan aldatu. Beste batzuek, aldiz, uste dute seme-alabek teknologia kontrolatzen dituztela, eta ez dutela ezer haiei irakasteko. Ez dira konturatzen, belaunaldi digitalean jaiotako gazteek teknika bera gurasoek baino hobeto menperatzen duten arren, oraindik asko dutela ikasteko bizitzan sare sozialek izan ditzaketen ondorioen inguruan. Ikastetxeetan teknologia berrien gaia kontraesanekin bizi dute. Alde batetik, hezkuntzarako tresna ezin hobeak izan daitezke. Baina, beste alde batetik, ikasleen kontzentrazioan eragiten dutela konturatzen dira. Gure gizarteak asko du ikasteko gai honen inguruan.

Gazteen artean zer arazo sortzen da sare sozialen inguruan?
Sarritan gertatzen dira irainak, jazarpenak, arazoak eta interpretazio okerrak. Hainbatetan ez dakite jasotzen duten informazio guztia kudeatzen. Erraztasun handiz egiten dute bat pertsona ezezagunekin edo askorik ezagutzen ez dutenekin, arrisku sentazio barik. Horrek, berez, ez du zertan txarra izan. Jazarpena sufritzea, aldiz, txarra da, eta ikusten gabiltza neska gazte askok

egoera horiek normaltasunez bizi dituztela. Sexu jazarpenari buruz nabilt hitz egiten, batez ere; txutxu-mutxuei eta fama txarra zabaltzeari buruz. Zentzu horretan, moral bikoitz arriskutsu bat nabari da. Gainera, gazteen ustez, normala da zeloak izatea eta bikotea kontrolatzea. Ondorioz, errespeturik, askatasun indibidualik eta berdintasunik ez duten bikote harreman itogarri eta toxikoak sortzen dira.

Zelako indarkeria egoerak dituzte bikote harremanetan? Zelan antzeman daitezke?

Harremanaren hasieran indarkeria leunagoa izaten da. Xantaia emozionalagaz bikotea barkatzen dute, eta bere lagunengana ingurua uztea eragiten diote. Bikoteak bere kidearen mugimenduak kontrolatzen ditu, zer egin dezakeen eta zer ez esaten dio, eta, berak nahi duena egiten ez badu, utzi egingo duela esanez mehatxatzen du. Indarkeria mota hori detektatzeko, barkatu egiten diren gauza txikiak indarkeriagaz lotu daitezkeela konturatzeko baizik ez dago.

Gazteak badaki indarkeria sufritzen dabilela?

Sarritan, indarkeria psikologikoa hazi egiten denean, logikak esango luke errazago nabaritu beharko litzatekeela. Baina gazteak maitasunaren inguruko mito eta idealen eraginpean egoten dira. Ematen du maitasuna zailtasunagaz eta tragediagaz lotuta dagoela. Maitasunarengatik pertsonak aldatu egiten direla saltzen digute, saiatzeko jarraitu behar dugula eta, beharrezkoa bada, horren alde bizia eman behar dugula. Neska gazteei zuzendutako eredu kulturean, filmetan, aldizkarietan eta musikan esate baterako, nabaritu daiteke muga gabeko maitasun bat existitzen dela. Sarritan jarrera erasokor eta bortitzak amodioaren eta pasioaren erakusgarri direla pentsatzen dute.

Neskak besteen gustuko izan daitezen hezten dira oraindik?

Txikitatik, umetatik, neskak besteak zaintzera, besteak ulertzera eta beraien edertasuna zaintzera zuzentzen dira. Elementu horiek ez dute zertan txarrak izan, beti ere, hori egin ahal izateko eta besteak maitatzeko ez baduzu zer edo zer utzi behar. Neskak osatuko dituen bikote bat bilatzeko bidean ere hezten dira, eta bikotea ez dutenak deskalkifikatu egiten dira, balio gutxiago balute bezala.

Ana Uriarte | BIOS orkestrako zuzendaria | Zornotza, 1961

“Elkarrekin jo ahal izateko desiatzen daude musikariak”

Hamarkada bat darama Ana Uriartek BIOS orkestra zuzentzen; bere herrian ariko da domeka honetan

> MUSIKA Itsaso Esteban

Domeka honetan, martxoaren 15ean eta apirilaren 19an kontzertu bereziak eskainiko ditu BIOS orkestrak, ordu berezietan, Zornotzan. Zelan sortu da eguerdiko kontzertuen ideia? Oso ideia ona da, ezohikoa guretzat ere, eguerdiko 12:00etan kontzertua eskaintzearena. Sarritan diot Zornotzakoa naizelako bizirauten duela orkestrak, eta adibide bat da apostu hau: sostengu handia jaso dugu beti Zornotzan.

Euskal Herri osoko musikari gazteak daude orkestran, eta Zornotzan elkartzen zarete entseguak egiteko, ezta? Bai, horrela da. Zelaieta zentroko erabilera ugariko gela da gure egoitza. Opera edo zarzuelatarako kanpoko orkestra zuzendariekin ibiltzen garenean ere, Zornotzan egiten ditugu entseguak.

Opera eta zarzuelatarako beste zuzendari batzuk gonbidatzen dituzue. Zergatik? Musikarientzat oso aberasgarria delako, eta, hein handi batean, beharrezkoa ere badelako hainbat orkestra zuzendarigaz aritzera ohitzea. Hau erabaki nuen hasieratik: opera edo zarzuelan aritzeko kontratatzen gaituzte-

nean, beste zuzendari batzuk gonbidatzea. Musikariek lan egiteko modu desberdinak eza-gutzea da helburua.

Zelakoak izango dira eguerdiko hiru emanaldia horiek? Domeka honetakoa, Karibeko musikan oinarrituriko kontzertua izango da; bigarrenak musika barrokoa hartuko du ardatz; eta, azkena, zinemako musikaren inguruko emanaldia izango da. Neuk zuzenduko dut azken hori, eta orkestra osoak joko du.

Jendea bertaratzen animatzeko zer azpimarratuko zenuke? Berritzailea dela planteamen-dua, eta kontzertu bakoitza berezia izango dela. Ez dezatela pentsatu, adibidez, domeka honetakoa musika klasikoko kontzertu bat izango denik. Perkusioa egongo da, eta dantzari bat ibiliko da oholtzan: oso dibertigarria izango da!

Lehenengo aldiz joko duzue Zornotzan? Ez, sarritan jo izan dugu, eta formatu askotariko kontzertuak izan dira, gainera. Orkestra osatu aurretik ere, Bilboko kontserbatorioko orkestragaz etortzen ginen Zornotzan jotzera.



Zelan antolatzen duzue zeuen burua entseguetan hainbeste jende elkartzeko? Esku artean dauzkagun proiektuen arabera izaten da entseguetan ematen dugun denbora; gainera, proiektuaren arabera izaten da parte-hartzaile

tuen arabera izaten da entseguetan ematen dugun denbora; gainera, proiektuaren arabera izaten da parte-hartzaile

kopurua ere. Orkestra osoagaz barik, talde txikiagotan jotzen dugu sarritan.

Zelakoa da orkestrako kideen arteko harremana? Ondo ezagutzen dugu elkar, eta oso inportantea da harreman ona edukitzea, hori transmititu egiten delako oholtzatik. Bakoitza beste hainbat gauzatan dabilenez, egunerokotasunagaz ez da gaiztotu musikarien arteko harremana. Jendea elkarrekin jotzeko desiatzen egoten da, eta oso energia positiboa nabari da.

Zornotza salbuespena dela aipatu duzu. Zer aukera duzue zuen lana aurrera eraman, eta erakutsi ahal izateko? Kultura, orokorrean, egoera negargarrian dago, eta gure orkestraren egoera ekonomikoa pobrea da, oso. Egia da salbuespena dela horretan Zornotza: herria kulturagaz arduratzen dela uste dut, eta kulturaren arloan zer-bait egin gura duenak erantzuna jasotzen duela, behintzat. Baina itzal handiko erakunde kulturalen babes handiagoa faltan sumatzen dugu, bertako sortzaileak bultzatzeko.

Baduzue asmorik BIOS orkestraren lana beste leku batzuetara ere zabaltzeko? Bai, jakina. Inguruko herrietan ere jo nahi dugu. Kulturara bideraturiko eraikinak badauzkagu, sasoi batean horien eraikuntzarako dirua bideratu zelako. Orain, horiek kulturaz eta bizitzaz betetzeko jendea kontratatzea da kontua. Nahi genuke kontzertu hauek beste herri batzuetan ere eskaini.



Orkestrako kideetarik gehienak musikari gazte profesionalak dira.

Musikari gazte euskaldunen aukera bakarra ez dadin atzerriratzea izan

Orain hamaika urte sortu zuten BIOS orkestra, musikari gazteei laguntzeko

Duela hamaika urte, 40 musikari gazte inguru elkartu ziren, eta BIOS orkestra sortu zuten. Hasieratik taldearen zuzendari den Ana Uriarte zornotzarrak gogora ekarri duenez, Iruñean (Nafarroa) eskaini zuten lehenengo kontzertua. Emanaldi horren ostean, Bilboko Aste Nagusiko zarzuelan musika jotzeko eskaintza egin zuten produktore batek. Ordutik hona, Uriartek azpimarratu duenez, aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu orkestrak. Hainbat opera emanalditan jo du, esa-

terako. José Carreras Bilboko Arriagan aritu zenean, adibidez, BIOS orkestrak eskaini zuen zuzeneko musika. Ikasketak amaitu ostean, musikari gazteek aurrean topatzen zuten aukera ezari irtenbidea emateko helburuz sortu zuten BIOS orkestra. Ana Uriarteren berbetan, “ikasle izandakoek ez zeukaten orkestra egonkor batean aritzeko eta erreperitorio bat lantzeko aukerarik: oso gazte prestatuak geneuzkan inguruan, baina hazteko aukera barik”.

Orkestra sortzea gazte horientzat musikaren munduan aurrera egiteko modua izan zitekeela pentsatu zuen Ana Uriarte musika irakasleak. Izan ere, musikatik bizi ahal izateko atzerrira alde egitea izaten baita, sarritan, Musikene goi-mailako musika ikastegian graduatzen diren gazte euskaldun askoren aukera bakarra. Bere garaian Uriartek bezala, euren musikari lanbidea Euskal Herrian eraikitzea erabakitzen dutenentzako aukera izan gura du BIOS orkestrak.

Celestina pertsonaia klasikoa, Ron Lalá antzerki taldearen begietatik

Charo Lopezek antzeztutako 'Ojos de agua' bakarriketa eskainiko dute Elorrion

> ANTZERKIA Itsaso Esteban
Ron Lalá antzerki taldeko Álvaro Tato idazlearen dramaturgia eta Yayo Caceresen zuzendaritza daukan antzezlan eskainiko dute, otsailaren 20an, Elorrioko Arriolan. Fernando de Rojasek XV. mendean idatzirikoa *La Celestina* nobelan oinarrituriko testutik sorturiko bakarriketa da *Ojos de agua*. De Rojasen lanaren pasarte ezagunak antzeztuko ditu Charo López (Salamanca, Espainia, 1943) aktoreak, eta beragaz jardungo dira Fran García eta Antonio Trapote: Parmenoren espirituarena egingo du Garciak, eta zuzeneko musika eskainiko du Trapotek.

Denboraren joanari buruzko gogoeta da *Ojos de agua* lanekoa: gozatu zein galdutakoari buruzkoa. Eta gozamen iturri zein arma izan daitezkeen sexuari eta

edertasunari buruzkoa ere bai. Egileek azpimarratu dutenez, "beste ezeren gainetik, bizitzako alaitasunari buruzkoa" da

obra. Antzezlanaren sinopsian azaltzen denez, Celestina protagonista gerizpean dagoen botere femeninoaren sinboloa



Charo Lopezegaz batera, Fran Garciak eta Antonio Trapotek ere badihardute oholztan.

da. Literatura unibertsaleko pertsonaia kontraesankorrenetako, sakonenetako eta bizitasun handiena duenetako bat da Celestina, taldekideek azpimarratu dutenez. Klasikoa, baina gaurkotatun handikoa ere bai. Kasu honetan, 1960ko hamarkadatik zinemari, antzerkian zein telebistan lan gogoangarriak egin dituen Charo López aktoreak gorpuztuko du Celestina.

GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA 'Txotxe'

Irakaslea



Elurra mara-mara

Ipar-ekialdeko haizeak, normalean, elurra ekartzen du, eta begi-bistan dago horrela gertatu zela pasa den astean. Atzera begiratu behar izan dugu horrelako elurte bat gogoratzeko. Batzuek esaten dute badirela 30 urte horrelakorik ez dutela ikusi, eta beste batzuek, aldiz, inoiz ikusi duten elurterik handiena izan dela komentatu dute; normala. Ekialdetik ere haize berriak datoz, eta urte hauek aldatu ezin zena aldatu daitekeen itxaropena piztu da gure artean. Gauza askoren aldaketaren premia dago, baina kultura arloan murgildu behar dugu zutabetxo honetan. LOMCE legea gainean dugu, nahiz Erkidegoko galbahe-tik pasatu, apika, ezartzen ari da gure hezkuntza sisteman. Musika eta plastika lehendik ere kaltetuak, aukerakoak izatera pasatu ahal dira DBHn. Bada ordua ezetz borobil eta ozen bat esateko lege honi. Aldaketaren haizea aprobe-txatuz, desmuntatu dezagun Kukutzako ekintzaileei egini-ko epaiketa, edo, hobeto esan, fartsa. Non dago egin behar zuten eraikina? Boladaren inertziarekin, %21eko zerga itotzailea bertan behera bota dezagun, antzerki talde eta kultur ikuskizun nahiko utzi baitu bidean, kultura batzuen esku pribilegiatuetara pasatuz. Euskal kulturgintza kinka larrian dago, eta bada ordua administrazioak arlo hau ganoraz babestu eta bultzatu dezan, ekoizleei, sortzaileei, aktoreei, antzerki konpainiei, musikariei begira.

Inoiz gutxitan jakiten dugu aldaketak noiz eta nola bermatzen diren, baina sikiera aprobe-txa dezagun ekialdetik datorren haizea, eta egin dezala elurra, mara-mara.

Zaragozako eta Irungo taldeentzat izan da Akadantzeko sari nagusia

Antolatzaileek diote kalitate handiko koreografiak egin dituztela dantzariak

> DANTZA

Kale dantzen hainbat modalitatetan, 30 dantza taldek parte hartu zuten, joan zen zapatuan, Elorrioko Akadantz lehiaketan.

Zaragozako A Tu Ritmo Crew eta Irungo Golden Konexion taldeek irabazi zuten Urban estiloko dantzen saileko sari nagusia, eta horri esker sailkatu dira

apirilean Bilbon jokatu den Break On Stage jaialdian parte hartzeko. Aipaturikoez gainera, beste hiru sari ere banatu zituzten Arriolako saioan.



Lehiaketaren epaimahaiak saritu zituen taldeetako dantzariak.

Bikotekako sailean, Gasteizko Akira Yoshidak eta Iruñeko Aritz Lopezek irabazi zuten lehenengo saria, eta Bilboko eta Iruñeko dantzariak osatutako Kaliba izeneko bikoteak bigarrena.

Dantza esperimentalaren arloan, bestalde, Basauriko Pretty Dolls eta Bilboko Arima taldeek jaso zituzten sariak. Arima talde bilbotarrak adina puntu bildu zituen Boom Shock Durangoko taldeak, baina bilbotarrei eman zien epaimahaiak saria.

Azkenik, Bilbora eta Irunera joan ziren junior kategoriako sariak; Little Hop eta New K taldeek jaso zituzten arlo horretako sariak.

Aspaldi agortu ziren 2015eko Akadantz lehiaketa ikusteko sarrerak, eta 250 lagunuen aurrean eskaini zituzten 30 taldeek euren koreografiak. Ikusmina zegoen, eta, antolatzaileek azpimarratu dutenez, aurreko edizioetan baino kalitate handiagoko lanak eskaini dituzte dantzariak aurtan.

Sanagustinale, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Móbil
La Gausa
Circo Teatro

Otsailaren 15ean
18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK OSTIRALERA	OTSAILAK 14 5e PIANO NAIZ HAURBENTZAKO ANTZERKI LABORATEGIA	OTSAILAK 15 18:00etan DOAN AIKO ERROMERIA ERROMERIA	OTSAILAK 18 19:00etan DOAN GENEROAZ BERBE(R)TAN ELKARRIZKETAK
---	--	--	--

Ez dago ezinezkorik

FORD FOCUS BERRIA

➤ **Lagunduriko aparkatze sistema**

Ikusi ere egiten ez diren lekuetan aparkatu daiteke? Ford Focus berriarekin posible da. Irudikatu ezinezko tokiak aurkitzen ditu, eta bertan aparkatzen du. Urrutira joaten lagunduko dizuten hainbat aukera ditu Ford Focus berriak; hau horietako bat besterik ez da.

ford.es

12.900€ edo 120€ hilean.

Sarrera 3.165€. Azken kuota 7.636€. 37 hilabete.



ford.es

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

Ford Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-tik 6,8 litro 100 kilometroko bitartera. CO2 emisioak 105etik 159 g/km-ra.

EcoBoost motorrak %20raino hobetzen du kontsumoa ohiko gasolina motor baten aldean. Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate atzeko kristal-jasogailuekin eta lainotako argiekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit Classic' kanpainaren bitartez finantziztearren; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Amaierako prezio 12.990,31€. Sarrera: 3.165€. Azken kuota: 7.636€. 37 hilabete. Zabaltze kuota: 334,06€. TIN %7,90. TAE %9,73. Epeka prezio osoa 15.455,31€. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modeloak ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.



Travellin' Brothers seikoteagaz ariko da Sugaray Rayford, Zornotzako emanaldian.



Texasen (AEB) jaiotako Sugaray Rayford blues abeslaria.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Sugaray Rayford AEBetako Texas estatuan jaiotako blues kantariari lagunduko dio otsailaren 19an, 20:30etik aurrera, Travellin' Brothers Leioako seikoteak. Chicago hiriko Mannish Boys blues talde ezaguneko kidea da Sugaray, eta duela lau urte inguru Hondarribiko Blues jaialdian ezagutu zuten Travellin' Brothers taldekoek. “Handik denbora batera geu izan ginen AEBetara joan ginenak”, gogoratu du Aitor Cañibano Travellin' Brotherseko taldekideak:

Sugaray Rayford blues kantaria eta Travellin' Brothers, Zornotzan

AEBetako blues musikariak kontzertua eskainiko du otsailaren 19an, Zornotzan

“Guri asko gustatzen zaigu bere ikuskizuna, eta berari ere gustatu zitzaion geure emanaldia, eta hortik sortu zen harremana”.

Sugaray Rayford “oso abeslari potentea da, eta bere ahotsa izugarria”, azpimarratu du datorren egunean beragaz jo-

ko duen Cañibanok: “Blueseko klasikoak eta ukitu modernoak uztartzen ditu, eta ikuskizun ederra eskaintzen du; dantzatu egiten du, publikoagaz harreman oso polita sortzen du kontzertuetan... Festa bilakatzen du kontzertu bakoitza!”.

Travellin' Brothers taldeko sei musikariak zabalduko dute otsailaren 19ko Zornotzako Zelaietako kontzertua, eta, ondoren, Sugaray Rayforden erreperitorioko kantak eta blueseko klasiko bertsioak joko dituzte guztiek elkarrekin.

Magnolia Route izeneko diskoa aurkeztera etorri da Sugaray Europara, eta Euskal Herrian hiru emanaldiko bira berezia egingo du Travellin' Brothersegaz, lau egunean jarraian: Basaurin eskainiko du lehen emanaldia, otsailaren 18an; hurrengo egunean, Zornotzan joko du; otsailaren 20an, Leioan; eta, azkena, Ermuko Lobianon. “Guretzat arrunta da lau egun jarraian jotzea”, dio Cañibanok. AEBetan egon berri dira, eta hamar egunean hamai-ka kontzertu eskaini dituzte.

‘Elecciones afectivas (expediente I/B)’ arte bilduma pribatua ikusgai

Durangoko Arte eta Historia Museoan egongo da erakusketa, otsailean



Txuspo Poyoren animazioko bideo lana ere badago erakusketan.

> ARTEA

Alberto Ipiña eta Begoña Bidaurreazaga bildumazaleek hiru hamarkadatan osaturiko artelanen lagin bat dago, martxoaren 8ra arte, Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai. Bildumazale horiek 34 urtez eskuraturiko artelanak herritar guztiekin partekatzeko helburuz sorturiko erakusketa da *Elecciones afectivas (expediente I/B)*. “Bokaziozko bildumazaleak dira Ipiña eta Bidaurreazaga, eta interes berezia dute euskal ar-

tisten sormena biltzeko”, azaldu du Xabier Sáenz de Gorbea arte historialariak erakusketaren aurkezpen orrian. “Inguruko galeriekin hilero kopuru txikiak ordaintzeko tratua eginez hasi ziren Ipiña eta Bidaurreazaga euren arte bilduma osatzen”, dio Sáenz de Gorbeak, eta urteotan 650 obra inguru bildu dituzte.

1950eko hamarkadako gerra ondoko artisten sorkuntzatik gaur egungo artisten lanetara

1950eko hamarkadako gerra ondoko artisten sorkuntzatik euskal artisten gaur egungo

lanetarainoko ibilbidea proposatzen du erakusketak: figurazioaren, arte proiektualaren, geometriaren, neofigurazioaren, neoespresionismoaren, transabangoardiaren eta abstrakzioaren erakusle diren koadro eta eskulturak daude ikusgai Durangoko erakusketan. Besteak beste, Ismael Fidalgo, Jose Antonio Sistiaga, José Luis Zumeta, Darío Urzay eta Nestor Basterretxearen lanak daude.

Marrazkiak, margolanak, eskulturak, argazkiak, bideo lanak eta dokumentuak daude Arte eta Historia Museoan ikusgai. Askotariko erakusketa da, eta, Sáenz de Gorbeak dioenez, ikuspuntuaren arabera, “hainbat erakusketa” ikusiko ditugu bertaratzen denak.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT
UKABILAK ETA LOREAK
Julen Belamuno (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT
NAIA ETA NABIL DETEKTIBEAK
Yurre eta Eneko Ugarte (2014)

MUSIKA
ASTIRITAN
Petti (2014)

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

 Kirola**Gonzalo Diaz** | Tabira igeriketa taldeko kidea | Durango, 1980

“Salbamendua eta sorospena kirol gisa sustatu gura ditugu”

Gonzalo Diazek zazpi urte eman zituen hondartza batean sorosle, eta lanbide horretik atera du kirolzaletasuna



> IGERIKETA Eneko Azurmendi Tabira igeriketa taldea berezia da gurean. Izan ere, igeriketa egiteaz gainera, salbamendu eta sorospen txapelketetan parte hartzen dute bertako igerilariak. Gonzalo Diaz taldeko txikien entrenatzailea da, eta, gainera, master kategorian lehiatzen da. Denbora gutxi da Tabira modalitate honetan lehiatzen hasi zela, baina goz gainezka dira durangarrak.

Zelan sortu zenuten taldea? Beno, salbamendu eta sorospen lehiaketetan ibiltzeko ideia neuk eman nuen. Kantabriako kirol talde batean ibili nintzen. Ondoren, Tabira taldera etorri nintzen, modalitate hau sortzeko ideia sortu zitzaidan. Beraz, zuzendaritzagaz ideia zehaztu genuen, zuzendaritza ere ados zegoelako, eta 2013. urtean hasi ginen kirol honeguz.

Nolakoa da horrelako klub baten funtzionamendua? Klubaren barruan bi modalitate dauzkagu. Batetik, igeriketa eta, bestetik, salbamendua. Uste dugu kirolarientzat oso aukera egokia dela horrelako klub baten parte izatea. Hainbat jardura

ditugu: manikiekin egiten diren probak, oztopo-probak, laguna arrastaka eramateko ariketak, hegatsen igeri egiteko saioak, hondartzako probak eta beste hainbat. Azken finean, astebururako irteten gara kanpora, eta gazteek ondo pasatzen dute, hori da garrantzitsua.

“Errutinagaz eta monotoniagaz apurtzea lortu nahi dugu”

Zuena da salbamenduan lehiatzen duen klub bakarra Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Egia esanda, orain dela gutxi jakin genuen salbamendu kirola Euskadiko Igeriketa Federazioak kirol modalitate hartzen duela; hau da, waterpolaren edo igeriketa sinkronizatuaren pareko dela. Gaur egun Euskadiko Igeriketa Federazioko presidentea, eta salbamendu eta sorospen arlokoa pertsona bera da.

Nolakoa da talde honen egunerokoa?

Irailan hasten den planifikazio bat daukagu, eta orduan hasten dira igeriketa eta salbamendu lehiaketak. Horien arabera eta Espainiako Txapelketarako behar dituzten gutxieneko marken arabera egiten dugu planifikazioa; horiei zuzendutako probak eta serieak egiten ditugu bakarrik. Orain, adibidez, Bizkaiko Txapelketa daukagu, eta horretara bideratzen ditugu entrenamenduak.

Zein da zuen egitekoa? Batez ere, monotonia haustea lortu nahi dugu, igeriketa klubetan egoten den betiko errutina hori aldatzea eta gauza desberdinak egitea. Eta, bigarrenik, Euskal Herrian salbamendua eta sorospena kirol munduan sustatzea. Gainera, uste dugu gure artean oso maila handia duten kirolari asko daudela, eta, bai eremu nazionalan, baita nazioartekoan ere, lehen postuetan egoteko aukerak dituztela esango nuke.

Ba al dago adinean mugarik klubean sartzeko? Ez. Kimuak dira gazteenak, eta

Euskal Autonomia Erkidegoan Tabira bakarrik dago inskribatuta, eta bertan, momentuz, durangarrak baino ez daude. Natalia Martinezek, adibidez, domina bi atera zituen Espainiako Txapelketan. Geroz eta jende gehiago gara, eta aurten emaitza hobeak lortzea espero dugu.

“85 urteko jendea ere ikusi izan dut txapelketetan lehiatzen”

“Geroz eta gehiago gara, eta aurten emaitzak hobetzea espero dugu”

Zuk entrenatzaile izateaz aparte, lehiatu ere egiten duzu, ezta?

Gaur egun, Euskadiko Salbamendu Kirol Federazioako arduraduna naiz, eta, horretaz gainera, igeriketa eta salbamendu txapelketetan parte hartzen dut, master kategorian. Salbamenduan 2009-2010 artean hasi nintzen, Santanderreko klub batean. Zazpi urte eman nituen hondartza batean sorosle, eta bertan kirol hau ezagutzeko aukera eduki nuen.

Zeintzuk dira hemendik aurrera dituzuen erronkak?

Bada, aurten, Europako Txapelketara aurkeztuko gara master kategorian; Alacanten jokatu da. Datorren urtean Holandan izango den Munduko Txapelketara ere joango gara.



Groseko eta Sestaoko errege-erreginen artean, peoi lan txukuna egiten dabil Abadiño

Iaz igoera lortu ostean, Euskadiko mailarik gorenenean dabil Abadiño, mailari eusteko bide onean



Abadiño B taldeko Ibon Martin. Asteburu honetan derbia jokatuko dute Abadiño eta Elorrioko Zaldi Baltza taldeek.

> XAKEA Joseba Derteano

Euskadiko eta Bizkaiko klubaren arteko xake ligak erdibidera heldu dira. Durangaldeko lau taldeen artean Abadiño dabil ondoen. Zornotza, Elorrioko Zaldi Baltza eta Durangoko Larrasoloeta espero zen mailatik behera dabilta.

Abadiño da eskualdeko ordezkari nagusia. Talde nagusiak Euskal Ligako Ohorezko Mailara igotzea lortu zuen iaz. Maila horretan Euskadiko talderik onenak dabilta, eta Gros

eta Sestao dira izar nagusiak. Talde bi horien artean, Espainiako Txapelketako azken lau aldietako hiru irabazi dituzte. Baliabide gehien duten taldeak dira. Horregatik eta talde igo berria delako, mailari eustea da Abadiñoaren helburu bakarra. Bide horretan lan ona egiten dabilta Ieray Galtzagorri, Alain Prieto, eta Rodrigo eta Diego Sarraide anaiak. Sailkapenaren erdian daude, eta joan zen asteburuan 1,5 puntu batu zituzten Sestaori egindako bisitan. Oso

emaitza duina da. Mailari eusteko bide onean dabilta, egindako inurri lanari esker.

Maila bat beherago, Euskadiko Lehen Mailan, sailkapenaren erdian dago Zornotzako xake elkarte talde nagusia. Iaz igoeratik puntu erdira geratu zen. Aurten ere borroka horretan bete-betean sartuta egotea zuen helburu, baina momentuz “esperotako mailatik apur bat behera” dabil, Seferino Sierra Txefe xakelariaren esanetan. Teorian errazenak ziren aurka

rien kontra huts egin du taldeak; sailkapeneko azken tokietan dauden Anaitasuna eta Fomento Cultural taldeen kontra jokoa izandako zortzi puntuetatik hiru bakarrik batu zituen. Hala ere, talderik indartsuenen aurka maila ona erakutsi du; esaterako, bina berdindu zuen Santurtzi liderraren aurka.

Zaldi Baltza, larri

Durangaldeko gainerako talde biak ere larri dabilta. Zaldi Baltza Bizkaiko Maila Goreneko azken-aurreko tokian dago. Iaz hirugarren tokian amaitu zuten lau xakelariak “espero baino txarrago” dabilta, Aitor Arabiotorre talde titularreko kideak onartu duenez. Bereziki mingarria egin zitzaion orain asteburu bi Gallartaren kontrako porrota; arerio zuzenaren kontra 3,5-0,5 galdu zuten. Sailkapeneko behealdean lau talde puntu gutxiren barruan daude, eta gaitz erdi. Hala ere, bigarren itzulian hobeto ibili beharko dute mailari eusteko. Bihar derbia dute Abadiño B-ren aurka.

Azkenik, Larrasoloeta ere estu dabil Bizkaiko Lehen Mailan. Azkenengo tokian dago. Zapatuan Balmaseda laugarren sailkatuak bisitatuko du Durango. Etsai indartsua izanagatik, puntuak batzea derrigorra dute.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Ametsa izan dut

Ametsa izan dut! Goizean goiz jaiki, semea itzartu, eta gosalduta ostean, maletan kirol jantzia sartu dugu. 09:00etan genuen hitzordua autobusa hartu, eta partidura joateko.

Hamar minutu lehenago heldu gara, eta han zeuden ume gehienak, partidua jokatzeko prest. Autobusa zetorren bitartean, hor aritu dira jolasean, euskara hutsean.

Autobusa heldu zaigu, maleta sartu ditugu, eta bakoitzak bere lekua hartu du. Hizketan jarraitu dute, oraingoan ere euskara hutsean. 30 minutu autobusean eman ondoren, Gernikara heldu gara.

Arin batean aldageletara joan, aldatu, eta han genituen 10 urtez azpiko hogeita neska-mutil kamiseta urdin eta praka zuriekin. Beroketa egin, eta bi talde egin ditugu, bakoitzean hamar kide.

Lehenengo partidua Getxoren aurka izan da. Epaileak lan ederra egin du, jokalariek ere, eta oraingoan ere komunikaziorako euskara erabili dute. Bigarren partidua Gernikaren aurka izan dugu. Joko ederra erakutsi dute talde biek, azkenean ohiko pasabidea egin, eta umeen arteko animoak zein jokalarien inguruko elkarrizketak euskaraz izan dira. Epaileari eskua luzatu diot, eskerrak eman, berak ere “eskerrik asko” erantzun dit.

Goiza hotz samarra izan da, baina neska-mutilak pozik doaz aldageletara. Handik laster ohiko ogitartekoa jaso, eta semeak galdetu dit: “Aita, gaur ondo jokatu dugu ezta?”. Jokatzear gain, euskaraz bizi daitekeela erakutsi didate, eta kirolak euskarari gazteen artean beharrezkoa duen bultzada eman diezaiokela. Ametsa, agian...

Schrieber suediarra fitxatu du Zornotzak

Pibota da, eta barruko jokoa indartuko du

> SASKIBALOIA

Zornotza Saskibaloi Taldeak Andreas Schrieber (Upsala, Suedia, 1987) suediarra fitxatu du. Pibota da, eta barrualdeko jokoa sendotzeko ekarri dute. Schrieberrek 2,06 metroko garaiera du, eta 111 kilo ditu.

Saski azpian ez ezik, tarteko jaurtiketetan ere ondo moldatzen dela adierazi du klubak. Ameriketako Estatu Batuetako Pennsylvania unibertsitatean (NCAA) eman zituen lehen urratsak. European hainbat taldetan jokatu du: Suedia, Frantzia eta Erresuma Batuko ligetan ibili da. Espainian talde bi izan ditu, biak Urrezko Ligan: Tarragonan, batez beste, 7,5eko balorazioa izan du, eta Oviedo Union Financieran 6,5eko balorazioa. Gainera, hainbat bider jokatu izan du Suediako selekzioagaz.

Kalanj pibot serbiarra

Zornotzak beste pibot bat ere hartu du denboraldia amaitu arte: Aleksandar Kalanj serbiarra. 28 urte ditu, eta 2,08 metroko altuera. Bosniako Lehen Mailako Mladost taldetik dator.



Andreas Schrieber Oviedo taldeagaz.

Amorebieta-Real Madril ikusteko sarrera bat doan adingabekoek

> FUTBOLA

Zinedine Zidane eta Odegaard talentu fitxatu berriaren Real Madril Castillak Amorebietaren kontra jokatuko du zapatuan, 16:00etan, Urriksen. Amorebietak puntuak behar ditu behealdetik irteteko, eta klubak

eskaintza berezia atera du zelaia bete dadin.

Betiko lez, 18 urtetik beherakoek doako sarrera izango dute, baina eskaintza berezi bati esker, nagusientzako beste doako sarrera bat eskuratu ahaliko dute. Zapatuan, 11:00etatik 13:00etara, Amorebietaren denda ofizialean erretiratu daiteke sarrera hori.

Bestalde, klubak argitu duenez, biharko partidua ez da klubaren egun erdia izango; bazkideek ez dute ordaindu beharko.

Trinketean atzeratutako finala gaur jokatuko dute

Elurraren eraginez, finala atzeratu egin zuten

> TRINKETA

Joan zen barikuan, San Blas Trinket Txapelketako finalak jokatzekoak ziren Abadiño Tornosolo trinketean, baina, elurraren eraginez, Ipar Euskal Herriko Bielle eta Lazkano pilotariek ezin izan zuten etorri,

eta, ondorioz, antolatzaileek final hori atzeratzea erabaki zuten. Finala gaur jokatuko dute, 19:30ean, Tornosolon. Elite mailako finalean, aipatutako pilotariek Ander Antxia abadiñarra eta Mikel Gonzalez berriztarra izango dituzte kontrario.

Durangaldeko bikotea da faborto txapela janzteko. Finalurrekoetan oso maila ona erakutsita kanporatu zituzten Inchauspe eta Harismendi.

Final horren aurretik, Bizkaiko Txapelketako kadete mailako partidua jokatuko dira.

Abadiñarrak galtzaile

Joan zen barikuan, elurrak ez zuen eragotzi Lehen Mailako finala jokatzeko. Asier Aspuru eta Aitor Arabiotorre abadiñarrek 33-40 galdu zuten Gandiaga eta Zabazaren aurka.

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PEDAGOGIA

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA
KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



OPTIKA

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

RPS: 162/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

“Ohiko kotizazio sistema ezarri gero, klub asko desagertu egingo lirатеke”

Areto futbol eta futbol taldeetan lanean dabiltzan lagunak Gizarte Segurantzaren kotizatzeraren behartzen dituen legearen aurka daude federazioak eta klubak; asteburuko partiduak bertan behera utzi dituzte



Durango Kulturala da asteburuan jokatu ez duen taldeetako bat. Kepa Aginako

> FUTBOLA Joseba Derteano Euskadiko eta Bizkaiko futbol federazioen ligetan ez da partidu bat bera ere jokatu asteburuan. Federazio biek bertan behera utzi dituzte futbol eta areto futboleko nesken zein mutilen ligetako partiduak; Hirugarren Mailatik kadeteetara arteko guztiak. Espainiako Enplegu Ministerioko lege baten ezarpenagaz “klub asko desagertzeko bidean” geratuko lirатеkeela diote federazioek, eta horren aurka protesta egingo dute.

Lege hori gauzatzen bada, klubetako jardueretan parte hartzen duten pertsona edo boluntario guztiak –jokalariak,

entrenatzaileak, futbol eskoletako monitorea, hezitzaileak eta masajistak, adibidez– Gizarte Segurantzako erregimen orokorrera batu beharko dira, horren arabera lan kontratuen bidez. Laburbilduz, Ogasun Sailak uste du pertsona horiek ere kotizatu egin behar dutela. Horrek, afizionatu mailako talde askoren bideragarritasuna kolokan jarriko duela uste dute federazioek, gastuen igoera ekarriko duelako.

Erregulazio propioa

Horren aurrean, Euskadiko eta Bizkaiko federazioek oso antzekoak diren komunikatu

bana argitaratu zuten eguazten goizean. Partidu guztiak bertan behera uzteko arrazoi nagusi bi dituzte. Batetik, “kirol ez-profesionalen berezitasun guztiak aurreikusten dituen erregulazio propioa eta espezifiko bat garatzea” eskatzen dute. Bestetik, kinielako diruaren banaketan, futbol profesionalagaz alderatuz gero, futbol ez-profesionala “diskriminatuta” dagoela salatu dute, eta banaketa justuagoa eskatu dute.

Futbolari “kalte handia”

Hirugarren Mailatik behera kirol horien Durangaldeko adierazgarriak nagusienak Du-

rango Kulturala, Elorrioko Buskantza eta Sasikoa dira. Kulturalako eta Buskantzako ordezkariak ados agertu dira presio neurriak erabiltzeagaz.

Fernan Bilbao Kulturalako presidentearen ustez, neurriak “kalte ikaragarria” egingo dio futbol ez-profesionalari, eta kotizazioa ohiko baremoetan egiten bada, “klub asko desagertu egingo dira, argi esanda”. Horregatik, federazioen eskaeragaz bat eginda, erregulazio propioa eta berezitu baten aldekoa da. Esaterako, Kulturalak oraintxe bertan dituen baliabideekin, “ezingo genuke aurrera egin”, adierazi du: “Guk orain jasotzen dugun dirua da gastatzen duguna. Dirua lortzeko bide berriak bilatu beharko lirатеke”. Baina nor dago prest horrelako ardura handi bat hartzeko? “Hurrengo batzordeari uzten zaion herentzia arriskutsua izan daiteke”.

Elorrioko Buskantzako lehen taldeko entrenatzaile Iker Saenz de la Cuestak ere uste du neurria aplikatzen bada, “klubek ezingo dituztela aurrekontuak osatu, are gutxiago krisi egoeran”. Elorrioko Buskantzak ezingo lioke aurrera egin, eta beste talde askok ere ez: “Areto futboleko ez dago dirurik”. Taldeak “desagertu” egingo direla uste du Saenz de la Cuestak, eta “nork osatuko du berri bat atzetik datorren kargagaz?”.

AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Real Madrid Castilla

Zapatuan, 16:00etan, Urritxe futbol zelaian.

> SASKIBALOIA

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Zornotza - Tabirako Baqué

Domekan, 20:00etan, Ixerbekoan.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Julza Zaldua - Josebar Aguilas Salde

Barikuan, 20:00etan, Zaldibarren.

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango - Oviedo

Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan.

> TRINKETEA

SAN BLAS TXAPELKETAKO FINALA (atzeratutakoa)

Elite maila:

Antxia-Gonzalez / Bielle-Lazkano

Barikuan, 19:30ean, Abadiñoko Tornosolo trinketeen.

> FRONTENISA

MALLABIKO FRONTENIS TXAPELKETA

- Izen-ematea irekita otsailaren 22ra arte telefono zenbakian: 669 028 718.

- Bazkideak: 8 euro. 1 euro jokatuako partidu bakoitzeko.

- Bazkide ez direnak: 8 euro. 2 euro jokatuako partidu bakoitzeko.

- Txapelketa otsailetik maiatzera jokatu da.

Ofizioa eta grina erakutsi, eta brontzea lortu du Abadiñok

Lesio batek urrezko dominatik aldendu zuen

> SOKATIRA J.D.

Abadiño sokatira taldeak brontzeko domina irabazi zuen pasa den zapatuan, Aian (Gipuzkoa) jokatuako 640 kilora arteko finalean. Urrezko dominak lor-

tzera ohituta dagoen taldearentzat emaitza xumea dirudi, baina, lehia zelan joan zen jakinda, meritu handiko domina da.

Sailkapen fasean erakutsitako mailaren arabera, Abadiño



Abadiñoko tiralariak Aiaiko tiraldi batean. Karkara aldizkaria

eta Ñapurak (Ezpeleta, Lapurdi) finalera heltzeko faborito nagusiak ziren. Baina Abadiñorentzat ezohiko finala izan zen. Ibarraren kontrako lehen tiraldian tiralari garrantzitsu batek min hartu zuen. Handik aurrera zazpigar aritu zen. Lehia orekatzeko, bere aurkariak ere zazpigar jardun zuten, baina logikoa den moduan, pisurik txikieneko tiralaria kendu zuten. Ondorioz, Abadiñok hogeiki inguruko desabantailagaz jardun zuen ia txapelketa osoan.

Ibarra eta Ñapurak taldeen kontrako lau tiraldiak galdu zituen, eta finaleko azken tiralditik kanpora geratu zen. Brontzeko dominarako borrokan, Muruetaren kontrako lehen tiraldia galdu egin zuen. Baina, bigarrena ere ia galduta zuela, hogeiki zentimetroren faltan, Abadiñoren erreakzioa heldu zen. Tiraldi horri buelta eman zion, eta hurrengo ere irabazi egin zuen.

Eski zeharkaldia antolatu du Alpino Tabira taldeak

Otsailaren 22an izango da zeharkaldiaren 31. ekitaldia, Tena haraneko Arroyeras mendian

> ESKIA Eneko Azurmendi

Urtero legez, Alpino Tabira mendizale taldeak mendi eski zeharkaldia antolatu du aurten ere. Aukeratutako mendia Tena haraneko (Huesca, Espainia) Arroyeras da, 2.573 metrokoa.

Iaz zorte ona eduki zuten, eta guztia ondo joan zitzaion. Beraz, aldaketa gutxi egin dituzte aurtengo ekitaldirako. Gauzak horrela, irteera iazko leku beretik izango da, Formigalgo estaziotik. El Pueyo de Jaca herriko Quinta Vista Alegre aterpetxean hartuko dute ostatu joaten direnak.

Beti bezala, herritarrei animatzeko deia luzatu diete Al-

pino Tabira mendizale taldeko kideek.

Izen ematea hasita

